

DENA KEN DENA

VII. JAUTARKOL OLERKI SARIA
BIGARREN SARIA: Jon Aiastrui Guridi
NONGOA: Oñati
LANAREN IZENBURUA: “DENA KEN DENA”

SEI ASTE

Katua izango banintz
Auto baten gainean egongo nintzen gauero
Eta edonori utziko nion laztantzen.

Ezer esan gabe,
Eskerrik eman gabe,
Beti aldamenera begira.

Horrela entzun nizun behin
Biluzik leihotik so ari zinela.
Libururen bat jaso, ertzak laztandu
Eta mahaian utzi ohi zenuen.
Usoak zeruko arratoiak ziren.
Eta hadriano oso tipo bakartia.
Gero Australiara itzuli zinen.

Sei aste geroago zure euskaldun maitea
Katurik katuen bezala bizi da.

Inori ezer esan gabe.
Eskerrak eman gabe.
Eta beti aldamenera begira.



TIKETA

Autorest S.A.
A-4 Kastejon
Tel 948.82.68.64
Eskerrik asko bisitagatik

96.06.29 04:17

Irene

EDARIA 500

EDARIA 500

EDARIA 1.000

EDARIA 1.000

Guztira 0,00

ZU KEN NI

Zu ken ni
Gehi ni zati hura
Bider hura ken zu
Berdin
Zu ken ni
Bider ni zati hura
Gehi zu ken ni
Bider hura ken zu.

Beraz,
Gaur zer?

METRO GELTOKIETAN

Metro geltokietan hiru aukera dago:

Inora ez begiratzea,
 Gauzei begiratzea
 Eta pertsoneri begiratzea.
 Zuk itxita dituzu begiak.
 Ni zuri begira nago.
 Iritsi da metroa
 Eta, begiak zabaldu barik,
 Bagoi batean sartu zara.

Metroa ni gabe joan da.
 Beste inor etorri aurretik,
 Itxi egin ditut begiak.

GELTOKIETAN

Ez larritu azken trenaren bila,
 Goizean beste bat egongo da.
 Geratu geltokian, edo kaletik ibili,
 Edo, beharrik baduzu, hartu hotela.
 Eta utzi maletak ohean, eta ezagutu kantoiak
 Eta tabernak, gu hantxe egongo gara,
 Goizalderarte, joango gara goizean
 Trenik baden ikustera, igoko gara
 Tren berean edo nor berean, edo ez gara igoko,
 Joango gara hurrengo goizean, edo hurrengoan,
 Edo egunen batean, baina ez larritu
 Azken trenaren bila, geratu gurekin
 Geltokietan bizitzera.